

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak eta "la Caixa"-ko presidentek erakunde horren gizarte-ekintzen akordio-esparrua sinatu dute 2012rako Nafarroan

*Finantza-erakundeak 3,5 milioi euro jarriko du laguntza, pedagogia, ingurumen eta kultur proiektuetarako*

Martes, 06 de marzo de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak eta "la Caixa" nahiz la Caixa fundazioko presidente Isidro Fainé-k lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean Iruñean gizarte, hezkuntza, ingurumen eta kultur arloetan. Akordioaren arabera, "la Caixa"-k helburu horietarako 3,5 milioi euro jarriko du 2012an.

Hitzarmenean jarritako helburuen artean azpimarratu behar dira: enpleguaren sustapena zailtasunak dituzten kolektiboen artean; gizarte-bazterketa arintzeko laguntza ematea; jarduerak sustatzea zahartzaro aktiborako; adin nagusikoen menpekotasun-egoeren prebentzioa, eta endekapeneko gaixotasunak dituzten pertsonen eta haien familiarrei arreta ematea

Sinadura-ekitaldian izan dira, Roberto Jiménez eta Álvaro Miranda Nafarroako Gobernuaren lehendakariordeak, eta "la Caixa"-ko zuzendaritzako kide Juan José Muguruza eta Raúl Marqueta.

"la Caixa"-ko presidente Isidro Fainé-rentzat, akordio hau "la Caixa"-k Nafarroarekin eta bertako herritarrekin irrimo inplikatzeko duen asmoa berresteko aukera da. Oso gustura gaude erkidego honetan, eta haren garapenaren aldeko apustua egiten dugu lehentasunezko helburu gisa", adierazi du.



Barcina Lehendakaria eta Isidro Fainé, "la Caixa"-ko presidentea.

Honako hauek dira "la Caixa"-k Foru Erkidegoaren herritarren beharrek duen konpromisoaren berri ematen duten zenbait ekimen garrantzitsu:

- *Incorpora*, zailtasunak dituzten kolektiboen artean enplegua sustatzeko programak 2011n, guztira, 156 lan-munduratzeko sustatu dituzten programari atxikitako 45 enpresa nafarretan.

- Adin nagusiko 3.900 pertsona inguruk parte hartzen dute urtero, autonomia, zahartze osasungarri eta boluntariotzako ekintzak sustatzeko tailerretan eta "la Caixa"-k lankidetzako hitzarmena duen adin nagusientzako 6 zentrotan sustatzen dituenak

- Endekapeneko gaixotasunak dituzten pertsonen eta haien familiarrei arreta integrala emateko programaren barnean lan egiten duen Iruñeko San Juan de Dios ospitaleko taldeak, dagoeneko 916 gaixori eta 2.073 familiarri arreta eman die.

- Jardunbide-ildo horiei erakundeak lagundutako proiektuak gehitu behar dira; proiektu horiek gehitu dira, gizarte-ekimeneko bere deialdien bidez eta, xede horretarako, 248.200 euro inbertitu zen 18 proiektu sustatze aldera.

"la Caixa"-ren gizarte-mailako konpromisoa "la Caixa"-ren bulego-sareak zuzenean bultzatutako 293 gizarte-jarduerekin osatzen da, bere ingurune hurbilenek dituzten beharrei erantzuteko asmoz. Deszentralizatutako gizarte-ekintzan sartutako ekimen horiei laguntzeko, erakundeak 261.000 euro inbertitu zuen 2011n. Gaur egun, "la Caixa"-k 53 bulego ditu Nafarroan eta 192 langile daude bertan.

Drogen kontsumoaren prebentzioa, boluntariotzari emandako laguntza, unibertsitarioen prestakuntza, mikrokredituak ematea, "la Caixa" Gizarte Ekintzaren lehentasunezko beste helburu batzuk dira eta haietan, Nafarroan, ahalegin handia egingo du.

### **Hezkuntza, ingurumena eta kultura**

2012an, "la Caixa"-k Nafarroako elkargoen esku jarriko du [eduCaixa](#), 3-18 urte arteko ikasleentzat, irakasleentzat eta ikasleen guraso-elkarteentzat. Baliabide pedagogikoak, berritzaileak, praktikoak eta erabilerrazak sartzen dira bertan, balioak, gizarte-konpromisoa eta taldeko lana indartzeko pentsatutako hezkuntza-proposamenekin

Ingurumen-arloan, "la Caixa"-k 2012an Nafarroako naturguneak babesteko bere programari eutsiko dio Foru Gobernuarekin duen hitzarmenaren arabera. Proiektu honek bazterketa-arriskuan dauden kolektiboen kontratazioa lehenesten du ingurumeneko lanak egiteko garaian. Gaur arte, 294 lagun lan-munduratzeko ekarri duten 98 proiektu sustatu dira. 2011n programa horrek ondorengo ekimenak hartu zituen barnean: Axuriko zohikaztegia zaharberritzea, Arakil eta Ultzama ibaien erriberak hobetzea, Salobreko hezegunearen hobekuntza hidrogeloa (Sesma-Lodosa) eta Longar ibaiko korridore ekologikoa lehengoratzeko (Viana).

Kultur zabalkundearen arloan, "la Caixa"-k [Rodin.Arte en la Calle](#) erakusketa sustatu du, berriki Iruñean amaitu dena. Tuteran [TecnoRevolución](#) jarriko da ikusgai; teknologietan barrena egindako ibilbidea erakusten da, eta bertako



Nafarroako Gobernua eta "la Caixa"-ren arteko hitzarmenaren sinadura-ekitaldia. Ezkerretik eskuinera: Álvaro Miranda, Roberto Jiménez, Presidenta Barcina, Isidro Fainé, Juan José Muguruza eta Raúl Marqueta.

interkonexioek gure inguruan dagoen mundua aldatzen ari dira; nanoteknologia, bioteknologia, informazio eta komunikazioen teknologiak (IKT) eta zientzia kognitiboak (NBIC).